

## BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 4202

*AGINDUA, 2022ko irailaren 20koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko irailaren 7ko 102/2022 Dekretuan aurreikusitako laguntza eskuratzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eta laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak.*

14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko irailaren 7ko 102/2022 Dekretuaren azken xedapenetako laugarrenak familia-politikaren arloan eskumena duen saileko sailburuari ahalmena ematen dio dekretua garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Zehazki arau horren 8.1 artikulua ezartzen duenez, bai laguntzok eskuratzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa, bai laguntza-eskabideen ereduak sailburuaren agindu baten bidez onartuko dira. 3. puntuan artikulua horren arabera, laguntzaren informazio-fitxa <https://www.euskadi.eus/servicios/0079104> webgunean dago eskuragai. Bertan egongo dira eskuragai bai eskabidea egiteko jarraibideak eta bai eskabide-inprimakiak. Eskabide-inprimakiak Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan ere eskuratu ahal izango dira.

9.2 artikulua laguntza-eskabideak aurkezteko faseak ezartzen ditu. Lehenengo eskabidea edo hasierako eskabide bat eta ondorengo laguntzaren jarraipeneko eskabideak bereizten dira, zeinak inprimaki sinplifikatu batean egin ahal izango baitira.

Ondoren, 8.2 artikulua dio eskabideak elektronikoki aurkez daitezkeela, edo aurrez aurre, Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan, inprimaki normalizatuaren bidez eta haren atal guztiak behar bezala beteta.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66. artikulua xedatzen du –administrazio prozedura hasteko eskabideei buruzkoa da artikulua– Administrazioak prozedura jakin batean espresuki ezartzen baditu berriazko eredu batzuk eskabideak aurkezteko, interesdunek nahitaez erabili beharko dituztela eredu horiek, eta gehitzen du eskatzaileek nahi adina datu erants ditzaketela eskabide-ereduan jasotakoak zehazteko eta osatzeko, zeinak organo hartzaileak onartu eta kontuan izan beharko baititu.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko irailaren 7ko 102/2022 Dekretuaren 8.1 artikuluan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eta laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak onartzea.

## 2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Agindu honetan aurreikusitako laguntza eskuratzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatze dokumentazioa eta laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak aplikatuko zaizkie 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatze laguntzei buruzko irailaren 7ko 102/2022 Dekretua indarrean jartzen denetik aurrera aurkeztu diren laguntza-eskabideei.

## 3. artikulua.– Laguntzak eskuratzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatze dokumentazioa.

### 1.– Laguntzak eskuratzeko eskakizunak dokumentazio honen bidez egiaztatu ahal izango dira:

a) Familia-unitatea osatzen duten gurasoen identitatea: Europar Batasuneko estatukide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte den estatu bateko nazionalitatea dutenen kasuan, titularraren nazionalitatea jasotzen duen nortasun-agiri ofizial baten bidez edo pasaportearen bidez, eta, gainerako herrialde batetako nazionalitatea dutenen kasuan, Atzerriarren Identifikazio Txartelarekin (AIT) edo pasaportearen, edo, hala dagokionean, duten bizileku-baimenaren bidez.

b) Erroldatzea: eskatzailearen errolda-agiriaren bidez, non jasoko baita bizilekuan bizi diren pertsona guztien zerrenda, eta adieraziko baita eskatzailea noiztik dagoen udalerrian erroldatuta.

Erroldatua egotea eskatzen den aldian zehar, eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan bizi izan bada, eskabidean zehaztu beharko du hori, eta eskakizun hori betetzen duela egiaztatzen duten dokumentazioa aurkeztu.

Ez da onartuko eskabidearen formulatze-eguna baino hilabete lehenagoko antzintasuna duen errolda-ziurtagiririk.

Laguntzaren eskatzaileak aurkeztutako dokumentazio eta informazio multzoak zalantzan jartzen badu eskatzaile hori benetan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den edo ez, baldintza hori betetzen dela egiaztatze ziurtagiriak eska ditzake laguntzak kudeatzen dituen organoak.

c) Gizarte Segurantzari ordaintzea etxeko langilearen kotizazioak, eskatzen diren hilabetei dagozkienak, dagozkion ordainagirien bidez.

d) Familia-unitatea osatzen duten gurasoak besteren konturako langileak badira, Gizarte Segurantzako alta-egoera eta egiten duten lanaldia Gizarte Segurantzaren kotizazio-datuen txostenaren bidez egiaztatuko dira –delako IDC agiria–.

Familia-unitatea osatzen duten gurasoak norberaren konturako langileak badira, Gizarte Segurantzaren kotizatu izanaren ordainagiriak aurkeztu beharko dituzte beren jarduera egiaztatze.

Familia-unitatea osatzen duten gurasoek ezintasun absolutu iraunkorra, lan egiteko ezintasun osoa edo ezintasun handia aitortua badute, egoera hori aitortzen duen administrazio-ebazpena aurkeztuko dute.

e) Ebazpen judizial edo administratibo baten bidez egiaztatu ahal izango da laguntzaren eskatzailearen eta seme-alaben –zeinak zaintzeko kontratatzen baita langilea– arteko filiazioa, adoptatzeko edo harrera iraunkorra egiteko tutoretza- edo zaintza-egoerako harremana.

### f) Diru-sarrera fiskalak, hauen bidez:

1) Dagokion administrazioak egindako likidazioa, familia-unitatea osatzen duten gurasoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenari dagokiona (baterako aitortpena edo bakoitzaren aitortpen indibiduala), laguntza eskatu baino bi urte lehenagoko zergaldikoa.

2) Familia-unitatea osatzen duten gurasoek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egin ez badute, dagokion administrazioak emandako ziurtagiria, laguntza eskatu baino bi urte lehenagoko zergaldiari dagozkion errenta guztiak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari egotz dakizkiokeen errenta eta errendimendu guztiak adierazten dituen.

g) Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, hauek egiaztatu ahal izango ditu eskatzaileak:

1) Ez dela inolako laguntzarik jasotzen ari 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeke.

2) Ez zaiola ezarri dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor- edo administrazio-arloko zigorrak, eta ez dagoela hartarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean.

3) Ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean. Erantzuna baiezkoa bada, zein prozedura den edo diren adieraziko da.

4) Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoera batean.

5) Egiazkoak direla eskabidean eta eskabideari erantsitako dokumentazioan emandako datuak.

h) Halaber, kasu hauetan:

1) Laguntzaren eskatzailea genero-indarkeriaren biktima bada, genero-indarkeriaren egoera egiaztatu beharko du Familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren 4.3 artikuluan ezarritako bitartekoren baten bidez –familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen dekretua aldatzeko martxoaren 17ko 32/2015 Dekretuaren bidez aldatutako artikulua– edo hura ordezkatzen duen arauaren bidez, familia-errenta estandarizatua zehazteko.

2) Familia-unitatea osatzen duten pertsonetako batek desgaitasun edo mendetasunen bat badu aitortuta, egoera hori egiaztatzen duen administrazio-ebazpena aurkeztu beharko du, familia-errenta estandarizatua zehazteko.

3) Epailearen ebazpen baten bidez ezarri bada seme-alaben zaintza eta jagoletza –zeinak zaintzeko kontratatzen baita langilea–, eskatzaileak dokumentu hori aurkeztu beharko du.

4) Familia-unitatea guraso bakarrekoa bada, familia-errenta estandarizatua zehazteko, eskatzaileak egiaztatu beharko du seme-alabak –zeinak zaintzeko kontratatzen baita langilea– bere mende daudela ekonomikoki.

Hori honela egiazta daiteke, besteak beste:

Adingabea berak bakarrik aitortua bada, hori egiaztatzen duen dokumentu administratiboaren bidez.

Bi gurasoek aitortu badute semea edo alaba, beste gurasoak ez duela mantenu-pentsioa ordaintzen egiaztatzen duen dokumentu judizial edo administratiboaren bidez.

5) Familia ugaria bada, eskatzaileak familia ugariaren txartela aurkeztuta egiaztatuko du.

2.– Eskatzaileak eskubidea du ez aurkezteko jadanik administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste administrazio orok egindakoak. Laguntzak kudeatzen dituen organoak aurreko apartatuko a), b), f) eta h) letretan –mendekotasuna eta familia ugariak– adierazitako dokumentuak kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egin ezean.

Aurka eginez gero edo, kontsulta egin ostean, dokumentazioa lortu ezin bada, arrazoia zeinahi dela ere, eskatzaileak berak aurkeztu beharko du dokumentazio hori.

3.– Hasierako eskabidearen jarraipena diren kotizazio-aldietako eskabideak inprimaki sinplifikatuan egingo dira, eta artikuluko honetako 2. apartatuko c) eta d) letretan jasotako dokumentazioa soilik aurkeztu beharko da; halaber, aldaketaren bat gertatuz gero aurretik egiaztatutako egoerarekin alderatuta, aldaketa horiei buruzko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

Jarduketa diruz lagungarria eten eta berriz abiarazi bada, inprimaki sinplifikatuaren bidez eskatuko da, eta, horrekin batera, artikuluko honetako 2. apartatuko b), c) eta d) letretan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da; halaber, aldaketaren bat gertatuz gero aurretik egiaztatutako egoerarekin alderatuta, aldaketa horiei buruzko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

4.– Laguntzak kudeatzeko ardura duen zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, dirulaguntza esleitu eta ordainketa egin baino lehen egiaztatu ere. Eskatzailea era arrazoituan aurka agertu ezean, bat etorritik azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Aurka egonez gero, eskatzaileak kasu bakoitzean eskumena duen organoak emandako administrazio-egiaztagiriri positiboak aurkeztu beharko ditu.

5.– Aurkezten diren atzerriko dokumentuek, hala badagokio, euskarara edo gaztelaniara modu ofizialean itzulita egon behar dute. Halaber, atzerriko dokumentu publikoek behar bezala legeztatutak egon beharko dute.

Europar Batasuneko beste estatukide bateko nazionalitatea dutenei Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko uztailaren 6ko 2016/1191 Erregelamendua (EB) aplikatuko zaie, zeinaren bidez errazten baita herritarren zirkulazio librea, dokumentu publiko jakin batzuk Europar Batasunean aurkezteko eskakizunak sinplifikatuta, eta zeinaren bidez aldatzen baita 1024/2012 Erregelamendua (EB).

4. artikulua.– Laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak.

1.– Jarraian adierazten diren laguntza-eskabideen inprimaki normalizatuak onesten dira, eta agindu honi eransten zaizkio:

14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatze eskatzen diren dirulaguntzak Z HASIERA izeneko inprimaki normalizatua beteta eskatu beharko dira.

14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatze eskatzen diren dirulaguntzak jarraipeneko inprimaki sinplifikatuaren bidez eskatuko dira, eta Z JARRAIPENA izeneko inprimaki normalizatua dagokie.

2.– Inprimaki normalizatuak eta horiek nola bete jakiteko jarraibideak «<https://euskadi.eus>» webgunean daude eskuragai. Zehazki:

2022ko irailaren 28a, asteazkena

14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko eskatzen diren dirulaguntza-eskabideak Z HASIERA izeneko inprimaki normalizatuari dagozkio, eta hemen daude: [www.euskadi.eus/servicios/0079104](http://www.euskadi.eus/servicios/0079104)

14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko eskatzen diren dirulaguntzak jarraipeneko eskabide sinplifikatuaren bidez eskatuko dira, eta Z JARRAIPENA izeneko inprimaki normalizatua dagokie, eta hemen daude: [www.euskadi.eus/servicios/0079104](http://www.euskadi.eus/servicios/0079104)

5. artikulua.– Dirulaguntza-eskabideak aurkeztea.

Dirulaguntzen eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke Eusko Jaurlaritzako Zuzenean-Herri-tarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean edo, bestela, elektronikoki ere bai.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hilabeteko lehen egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 20a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

2022ko irailaren 28a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA  
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
Familia eta Haurren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES  
Dirección de Familias e Infancia



Inprimatu

## 14 URTEK BEHERAKO SEME-ALABA ANDINGABEAK ZAINTEKO LANGILEAK KONTRATATZEAGATIKO DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA

### HASIERAKO ESKABIDEA

IRAKURRI ARRETAZ ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK (inprimaki honen amaieran)

### ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Interesduna  Ordezkaría

**ESKATZAILEAREN DATUAK (ZAINTZAILEA KONTRATATU DUENARENA):** Abizenak eta izena nortasuna egiaztatzeko agirian (NANA edo AIZ) agertzen diren **BERDIN-BERDINAK** izan beharko dira

#### Titularra:

NAN/AIZ

AIT (AIZ izanez gero bete):

1. abizena:

2. abizena:

Izena:

Telefono

Sexua:

gizona

emakumea

Egoera:

ezkongabea

ezkondua

izatezko bikotea

banandua - dibortziatua

alarguna

00791

#### Ordezkaría:

NAN/AIZ:

AIT (AIZ izanez gero bete):

1. abizena:

2. abizena:

Izena:

Telefono

Sexua:

gizona

emakumea

Jakinarazpenetarako helbidea:

PK:

Udalerría:

Zk

Sol.:

Letra:

Lurralde historikoa:

#### Erroldaren antzintasuna (jarri X dagokion laukitxoan):

Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta nago eta egon naiz etenik gabe azken 12 hilabeteetan. Betetzen ez baduzu, ikusi eskabidea betetzeko jarraibideak.

BAI

EZ

Adierazi zein udalerritan egon zaren erroldatuta azken 10 urteetan (guztiak):

2022ko irailaren 28a, asteazkena

**EZKONTIDEAREN EDO BIKOTEKIDEAREN DATUAK: Bi gurasokide dituen familia bada, adierazi ezkontidearen edo bikotekidearen datuak.**

NAN/AIZ/Pasaportea: <input type="text"/>	AIT: <input type="text"/>
1. abizena: _____	2. abizena: _____
Izena: _____	

**FAMILIA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK:**

<ul style="list-style-type: none"> <li>Familia ugariaren titulua daukazu?</li> <li>Familian gurasokide bat al da sostengatzaile ekonomiko bakarra?</li> <li>Familia-unitateko kideren bat genero-indarkeriaren biktima da?</li> <li>Gurasokideren batek mendekotasun akutua, mendekotasun handia edo % 50etik gorako desgaitasuna dauka aitortuta?</li> </ul>	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
---	--

**FAMILIA-UNITATEAN BIZI DIREN SEME-ALABEI BURUZKO DATUAK:**

Jaioteguna	SEME-ALABAK Izen-abizenak	Desgaitasuna		Mendekotasuna		Tutoretza (T) / Adopzioa (A) / Harrera Iraunkorra (HI) / Adopzio-helbururako zaintza (Z)				
		Adierazi %		Adierazi maila		T	A	HI	Z	Data
		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Banandu, dibortziatu edo harremana deuseztatzuz gero, familia-unitatean dauden seme-alaben zaintza eta babesia egiaztatu beharko dira.

**DIRUZ LAGUN DAITEKEEN JARDUERAREN DATUAK (Adierazi zein kontratazio-alditarako eskatu den laguntza)**

Noiztik	Noiz arte

**KONTRATATUTAKO PERTSONAREN EDO BATA BESTEAREN ONDOREN KONTRATATUTAKO PERTSONEN DATUAK**

1. abizena: _____	2. abizena: _____	Izena: _____
NAN/AIZ: <input type="text"/>	Alta-eguna G. Segurantzana: _____	Baja-eguna G. Segurantzana: _____
1. abizena: _____	2. abizena: _____	Izena: _____
NAN/AIZ: <input type="text"/>	Alta-eguna G. Segurantzana: _____	Baja-eguna G. Segurantzana: _____
1. abizena: _____	2. abizena: _____	Izena: _____
NAN/AIZ: <input type="text"/>	Alta-eguna G. Segurantzana: _____	Baja-eguna G. Segurantzana: _____

2022ko irailaren 28a, asteazkena

**ESKATZAILEA BESTEREN KONTURAKO LANGILEA EDO BAZKIDE KOOPERATIBISTA BADA,  
ZERBITZUAK EMATEN DITUDAN ENPRESA EDO ERAKUNDEAREN DATUAK**

IFK/IFZ:	<input type="text"/>
Enpresaren izena:	_____
Lan-harremana:	<input type="checkbox"/> ARLO PRIBATUA <input type="checkbox"/> ARLO PRIBATUA KOOPERATIBA <input type="checkbox"/> ARLO PUBLIKOA
*Lanaldi-mota:	<input type="checkbox"/> Osoa <input type="checkbox"/> Kontratu partziala <input type="checkbox"/> Lanaldi-murrizketa
	Kontratututako lanaldi-ehunekoa, lanaldi osoari dagokionez, sektoreko hitzarmenaren arabera (%) _____
	Lanaldiaren murrizketa-ehunekoa (%) _____

**EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA BESTEREN KONTURAKO LANGILEA EDO ENPRESAKO BAZKIDE  
KOOPERATIBISTA BADA, EZKONTIDEAK EDO BIKOTEKIDEAK ZERBITZUAK EMATEN DITUEN ENPRESA  
EDO ERAKUNDEAREN DATUAK**

IFK/IFZ:	<input type="text"/>
Izena:	_____
Lan-harremana:	<input type="checkbox"/> ARLO PRIBATUA <input type="checkbox"/> ARLO PRIBATUA KOOPERATIBA <input type="checkbox"/> ARLO PUBLIKOA
*Lanaldi-mota:	<input type="checkbox"/> Osoa <input type="checkbox"/> Kontratu partziala <input type="checkbox"/> Lanaldi-murrizketa
	Kontratututako lanaldi-ehunekoa, lanaldi osoari dagokionez, sektoreko hitzarmenaren arabera (%) _____
	Lanaldiaren murrizketa-ehunekoa (%) _____



2022ko irailaren 28a, asteazkena

## JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

<b>Komunikazio-hizkuntza:</b>	<input type="checkbox"/>	Euskara	<input type="checkbox"/>	Gaztelania
<b>Jakinarazpen-kanala:</b>	<input type="checkbox"/>	Posta-helbidea	<input type="checkbox"/>	Telematikoa
<p>Jakinarazpen-kanal telematikoa aukeratzen baduzu, <b><u>ezinbestekoa da identifikazio-ziurtagiri elektronikoa edukitzea</u></b>.</p>				
<p>Jakinarazpen administratibo bat badaukazu, mezu elektronikoa edo SMS bat jasoko duzu (zein den aukeratutako jakinarazpen-kanala). Bertan adieraziko zaizu <a href="http://www.euskadi.eus/familia">www.euskadi.eus/familia</a> web-orrira jotzeko, elektronikoki identifikatzeko eta "Nire karpeta" atalean sartzeko, ebazpena osorik ikusi ahal izateko.</p>				
<b>Abisu edo jakinarazpenetarako kanala:</b>				
<b>Telefono mugikorra</b>				
<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>				
<b>Posta elektronikoa</b> _____				

2022ko irailaren 28a, asteazkena

## ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik, \_\_\_\_\_ (izena eta bi abizenak),

NAN/AIZ: \_\_\_\_\_

## ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUT:

## Lehena: Hautatu bi aukera hauetakoren bat:

 a- Ez naizela jasotzen ari helburu berbererako inolako laguntzarik beste administrazio publikoetatik. b- Administrazioen baten laguntza jasotzen ari naizela. Zein zenbateko? \_\_\_\_\_

## Bigarrena

 Ez zaidala ezarri dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor- edo administrazio-arloko zehapenik, eta ez nagoela hartarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean.

## Hirugarrena

 Ez dudala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo haren erakunde autonomoek hasitako itzultze- edo zehapen-prozedurarik irekita, emandako laguntzak edo dirulaguntzak direla-eta.

## Laugarrena

 Ez nagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako gainerako egoeren eraginpean.

## Bosgarrena.

 Irakurri ditudala eskabidea betetzeko jarraibideak eta aurkeztu beharreko dokumentuen eranskinak, eta egiazkoak direla eskabidean eta erantsitako dokumentazioan jasotzen diren datuak.

## Seigarrena.

 Betetzen ditudala indarrean dagoen arauan laguntzen onuradun izateko ezarritako betekizunak; baditudala horiek guztiak egiaztatzen dituzten agiriak, eta konpromisoa hartzen dudala beroriek betetzen jarraitzeko dirulaguntza gozaten dudan aldian zehar.

## ESKATZEN DUT:

Eman dakidala 14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen irailaren 7ko 102/2022 Dekretuan aurreikusitako laguntza.

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren (a)

## ESKATZAILEAREN SINADURA

## OHAR GARRANTZITSUA: LAGUNTZAK IKUSKATZEA ETA KONTROLATZEA

14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen irailaren 7ko 102/2022 Dekretuaren 16. artikulua honako hau ezartzen du laguntzak ikuskatu eta kontrolatzeko lanei buruz:

*"Familia-politikaren gaineko eskumena duen sailak ikuskapen- eta kontrol-lanak egin ditzake dekretu honen helburuak betetzen direla bermatzeko".*

2022ko irailaren 28a, asteazkena

## ESKATZAILEAREN ETA BERE EZKONTIDE EDO BIKOTEKIDEAREN BAIMENA

## ESKATZAILEA

Nik, \_\_\_\_\_ (izena eta bi abizenak),

NAN/AIZ/Pasaporte:

AIT \_\_\_\_\_

EZKONTIDEA EDO  
BIKOTEKIDEA

Nik, \_\_\_\_\_ (izena eta bi abizenak),

NAN/AIZ/Pasaporte:

AIT \_\_\_\_\_

Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritzak ofizios kontsultatuko ditu honako hauek (9/2015 Legearen 28. artikulua):

1. Identifikazio-datuak.
2. Errolda-datuak.
3. Familia ugarien txarteleko datuak.
4. Mendekotasunari buruzko datuak.
5. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzeari buruzko datuak.

Salbu **ESKATZAILEAK**, arrazoiak eman, eta aurka egiten badu (10. atala. Izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko informazioa,<https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/065100- capa1-es.shtml>). Uko egiten diot Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritzak administrazio eskudunaren informazioa jasotzeko baimena emateari.Salbu **ESKATZAILEAREN EZKONTIDEAK EDO BIKOTEKIDEAK**, arrazoiak eman, eta aurka egiten badu (10. atala. Izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko informazioa,<https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/065100- capa1-es.shtml>). Uko egiten diot Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritzak administrazio eskudunaren informazioa jasotzeko baimena emateari.Sinadura  
ESKATZAILEASinadura  
EZKONTIDEA/BIKOTEKIDEA

Eskabidean ageri diren izaera pertsonaleko datuak tratatu egingo dira, eta honako izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira. Familientzako laguntzak.

- **Arduraduna:** Familia eta Haurren Zuzendaritza
- **Helburua:** Laneko eta familiako bizitzak bateragarri egiteko laguntzen eta seme-alabak dituzten familientzako laguntzen kudeaketa.
- **Legitimazioa:** Tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta informazio gehigarrian adierazten diren eskubideak ere.
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrialdean begira dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/rqpd/0079104>.

Eta hori guztia, honako hauek betetzeko:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>)
- Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>)

2022ko irailaren 28a, asteazkena

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU-OGASUNEI DATU EKONOMIKOAK ESKATZEKO BAIMENA

DATU EKONOMIKOAK ESKABIDE HAU AURKEZTU DEN DATA BAINO BI URTE LEHENAGOKOAK DIRA

ATAL HAU NAHITAEZ BETE BEHARKO DA ESKABIDE GUZTIETAN, honako kasu hauetan salbu:

- 1) Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitortpena EAetik kanpo egin bada edo EAetik kanpo egin behar bazen.
- 2) Azken hiru urteetan eskatzailearen nortasun-agirian aldaketaren bat izan bada (AIZa izatetik NANA izatera pasatu, izenaren grafia aldatu, abizenen hurrenkera aldatu bada, eta abar).
- 3) Identifikatzeko pasaporteia erabili bada.

Kasu horietan, eskatzaileak nahitaez aurkeztu beharko du eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldiari dagokien errenta-aitortpenaren kopia, edo, bestela, PFEZean kontuan hartutako diru-sarreraren ziurtagiria, eskumena duen administrazioak egina.

## ESKATZAILEAREN DATUAK:

NAN/AIZ/Pasaporteia:	<input type="text"/>	AIT:	<input type="text"/>
1. abizena:	<input type="text"/>	2. abizena:	<input type="text"/>
Izena:	<input type="text"/>		

## EZKONTIDEAREN / BIKOTEKIDEAREN DATUAK:

NAN/AIZ/Pasaporteia:	<input type="text"/>	AIT:	<input type="text"/>
1. abizena:	<input type="text"/>	2. abizena:	<input type="text"/>
Izena:	<input type="text"/>		

A.- BAIMENA EMATEN DUZU FORU OGASUNARI DATUAK ESKATZEKO?	ESKATZAILEA	EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA
Ez dut baimenik ematen; gutxienerako laguntza hartuko dut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bai, datuak eskatzeko baimena ematen dut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>B.- ERRENTA-AITORTPEN AURKEZTU ZENUEN?</b>		
Ez nuen errenta-aitortpena aurkeztu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Errenta-aitortpena aurkeztu nuen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>C.- IAZ ZEIN MOTATAKO ERRENTA-AITORTPEN AURKEZTU ZENUEN?</b>		
Banakako aitortpena	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Baterako aitortpena egungo ezkontidearekin edo bikotekidearekin eta, hala badagokio, seme-alabekin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Baterako aitortpena aurreko ezkontide edo bikotekidearekin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Banakako eta baterako aitortpena (egoera zibila aldatuz gero, ikus jarraibideak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Baterako aitortpena seme-alabekin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>D.- ZEIN LURRALDETAN AURKEZTU ZENUEN EDO AURKEZTU BEHARKO ZENUKEEN AITORTPEN A?</b>		
Araba	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bizkaia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gipuzkoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

\_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren (a).

SINADURA: ESKATZAILEA SINADURA: EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA

Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteetan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo zergapetu baduzu, zure diru-sarrerak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko duzu

10 orritik 7.a

**Z HASIERAKOA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

1. Familia-unitatea osatzen duten seme-alaba guztien nortasuna
  - Filiazioa, adopzioa: Familia-liburua, jaiotze-partida.
  - Tutoretza, adopzioa, adopzio-helbururako zaintza edo harrera iraunkorra: dokumentu judiziala ala administratiboa, edo erregistro-inskripzioko ziurtagiria.
2. Seme-alabak zaintzeko kontratutako etxeko langileari Gizarte Segurantzari alta eman zaiola adierazten duen egiaztagiria.
3. Seme-alabak zaintzeko kontratatutako etxeko langilearen kotizazioa Gizarte Segurantzari ordaindu izanaren agiriak, dirulaguntza eskatzen diren hilabetei dagozkienak.
4. Familia-unitatea osatzen duten gurasoak alta emanda daudela eta diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean lan egiten duten sektorean lanaldi osoan dihardutela egiaztatzen duten agiriak:
  - Besteren konturako langileak edo bazkide kooperatibistak: Gizarte Segurantzaren “Kotizaziorako Datuen Txostena - Besteren konturako langileak” agiria.
  - Norbere konturako langileak edo autonomoak: autonomoen Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainagiriak.
5. Hirugarrenaren altaren fitxa, eskatzailearen bankuko datuak dituela. Eskabideari erantsita dauden ereduetatik bat aukeratu beharko da, banku-erakundea hauetakoren bat den edo ez kontuan hartuta: KUTXABANK, LABORAL KUTXA, CAIXABANK, BBVA, BANCO SANTANDER, SABADEL edo CAJA RURAL DE NAVARRA.
6. Eskabide hau aurkeztu ondoren, laguntzak kobratzeko banku-kontuaren zenbakia aldatu dela jakinaraziz gero, laguntzak kudeatzen dituen organoak egingo du aldaketa, eta, hortaz, aldaketa ez da berehalakoa izango.
7. Eskatzailearen ezkontza deuseztatu bada, edo eskatzailea banandu edo dibortziatu bada, etxeko langilea kontratatzeko arrazoia den seme edo alabaren zaintza eta babesba esleitzen dituen ebazpen judizialaren fotokopia.
8. Ez da onartuko gurasoen eta seme-alabaren arteko neurriak arautzen dituen hitzarmenik, baldin eta dagokien berrespen-epairik ez badute.
9. Familia-unitatea osatzen duten pertsonetako batek lanerako desgaitasun, mendekotasun edo ezintasun absolutu edo osoren bat badu aitortuta, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiria.
10. Genero-indarkeriaren biktima izanez gero, hori egiaztatzen duen egiaztagiria.
11. Familia gurasobakarren kasuan, kontratatutako zaintzailearen bidez zaindu behar den semea edo alaba ekonomikoki eskatzailearen mende soilik dagoela egiaztatzen duen agiria.

**ELKARRERAGINGARRITASUNETARAKO BAIMENA EMAN BADUZU –eskabide honen 6. eta 7. orriak–, EZ DITUZU HONAKO AGIRI HAUEK AURKEZTU BEHARKO**

- A. Eskatzailearen eta egungo ezkontidearen edo bikotekidearen nortasuna: NANaren, AITren edo pasaportearen fotokopia.
